



# NAFARROAKO PARLAMENTUKO

## ALDIZKARI OFIZIALA

VII. legegintzaldia

Iruña, 2010eko apirilaren 30a

49. ZK.

### A U R K I B I D E A

#### B SAILA:

##### **Foru lege proposamenak:**

- Foru Lege proposamena, Lurraldearen Antolamenduari eta Hirigintzari buruzko 35/2002 Foru Legea aldatzekoa. Convergencia de Demócratas de Navarra foru parlamentarien elkarteak aurkeztu du (3. or.).
- Foru Lege proposamena, Haurrentzako eta Nerabeentzako Sustapenari, Laguntzari eta Babesari buruzko abenduaren 5eko 15/2005 Foru Legea aldatzen duena. Zuzenketak aurkezteko epea (4. or.).

#### E SAILA:

##### **Jabeldurak, mozioak eta adierazpen politikoak:**

- Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da Nafarroako Bidaiarien Garraioari buruzko Planaren proposamena igor dezan, Parlamentuan eztabaidatzeko eta onesteko. Nafarroa Bai parlamentu-taldeak aurkeztu du (5. or.).
- Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da Sexu- eta ugalketa-osasunari eta haurdunaldiaren borondatezko etendurari buruzko Lege Organikoaren aurkako konstituziokontrauneko errekurtsoa erretira dezan. Socialistas del Parlamento de Navarra parlamentu-taldeak aurkeztu du (6. or.).
- Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da ez dadin has Sanferminetako Museoa eraikitzen harik eta bideragarritasun-plan bat egin arte. Socialistas del Parlamento de Navarra parlamentu-taldeak aurkeztu du (7. or.).
- Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernuak lehendakariari eskatzen zaio Osasuneko kontseilaria kargutik ken dezan, baldin eta hark dimisioa ematen ez badu. Nafarroa Bai parlamentu-taldeak aurkeztu du (9. or.).
- Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernuari kargu hartzen dio, erakundearen erabilera sektarioa egiteagatik eta Parlamentu honen gehiengoarekiko duen intsumisio-jarrerarengatik. Ion Erro Armendáriz jaunak aurkeztu du (10. or.).
- Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da gazteen sexualitatearen arloko osasun laguntza-plana presta dezan. Mozioa erretiratzea (11. or.).
- Adierazpen instituzionala. Horren bidez, Nafarroako Parlamentuak HMEA 2010 Manifestuarekin bat egingen du, “Hezkuntzaren aldeko gol bat” kanpainaren barruan. Eledunen Batzarrak onetsia (11. or.).

**F SAILA:****Galderak:**

- Galdera, Beraingo kontsultategiari buruzkoa, Asun Fernández de Garaialde andreak egina (12. or.).
- Galdera, Zizur Nagusiko liburutegia goizetan ixteari buruzkoa, Patxi Telletxea Ezkurra jaunak egina (12. or.).
- Galdera, antzerki amateurraren garapenari eta sustapenari buruzkoa, Patxi Telletxea Ezkurra jaunak egina (13. or.).
- Galdera, Gas naturala Ega ibarrera eramateari buruzkoa, Samuel Caro Sádaba jaunak egina (13. or.).
- Galdera, nekazaritzan ongari organikoaren erabilera sustatze aldera Landa Garapeneko eta Ingurumeneko Departamentuak darabilen politikari buruzkoa, María Gracia Iribarren Ribas andreak egina (14. or.).
- Galdera, adineko mahastiei buruzko lanak Tracasari emateko irizpideei buruzkoa, María Gracia Iribarren Ribas andreak egina (14. or.).
- Galdera, zerri-gizendegiei ezartzen zaizkien betekizunei buruzkoa, María Gracia Iribarren Ribas andreak egina (15. or.).
- Galdera, Liburutegiei buruzko Foru Legeko IV. kapituluaren ezarritakoa garatzeko jarduketa planari buruzkoa, Román Felones Morrás jaunak egina (16. or.).
- Galdera, ahariaren epididimitis kutsakorrari buruzkoa, Aitor Etxarri Pellejero jaunak egina (17. or.).
- Galdera, Leitzako institutuko hobekuntza lanei buruzkoa, Aitor Etxarri Pellejero jaunak egina (17. or.).
- Galdera, Arrúbalen eta Los Arcosen arteko eta Iguzkitzaren eta Murietaren arteko linea elektrikoei buruzkoa, Aitor Etxarri Pellejero jaunak egina (18. or.).
- Galdera, Arga eta Aragoi ibaiek bat egiten duten lekuan uholdeen aurrean babesteko eta ibaiak lehengoratzeko jarduketari buruzko azterlanaren ondorioei buruzkoa, María Gracia Iribarren Ribas andreak egina (18. or.).
- Galdera, Lizarrako adimen-osasuneko egoitza eraikitzeak aukera baztertu izanari buruzkoa. Galdera erretiratzea (19. or.).

**H SAILA:****Bestelako testu arau-emaileak:**

- 3/2010 Legegintzako Foru Dekretua, apirilaren 12koa, Tributu Harmonizazioari buruzkoa, Zerga Bereziei buruzko abenduaren 30eko 20/1992 Foru Legea aldatzen duena (20. or.).

---

**B saila:**  
**FORU LEGE PROPOSAMENAK**

---

## **Foru Lege proposamena, Lurraldearen Antolamenduari eta Hirigintzari buruzko 35/2002 Foru Legea aldatzekoa.**

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2010eko apirilaren 26an egindako bilkuran, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

Nafarroako Foru Eraentza Berrezarri eta Hobe-tzeari buruzko Lege Organikoaren 19.1.b) artikulua aitortzen dion legegintzarako ekimena erabiliz, Convergencia de Demócratas de Navarra foru parlamentarien elkarteak Lurraldearen Antolamendu-ari eta Hirigintzari buruzko 35/2002 Foru Legea aldatzeko Foru Lege proposamena aurkeztu du.

Hori horrela, Legebiltzarreko Erregelamenduko 147. artikuluan ezarritakoarekin bat, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, hona

### ERABAKIA:

**1.** Lurraldearen Antolamenduari eta Hirigintzari buruzko 35/2002 Foru Legea aldatzeko Foru Lege proposamena Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

**2.** Foru lege proposamen hori Nafarroako Gobernura igortzea, Erregelamenduko 147. artikuluan ezarritako ondorioetarako.

Iruñean, 2010eko apirilaren 26an

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

### **Lurraldearen Antolamendu eta Hirigintzari buruzko 35/2002 Foru Legea aldatzeko Foru Lege proposamena**

#### ZIOEN AZALPENA

2004. urteaz geroztik, Nafarroan baremo baka-rreko sistema bat daukagu, babesturiko etxebizit-zen esleipenean objektibotasuna, publizitatea eta gardentasuna ezartzen dituena. Urrun geratzen dira herritarrek hainbestetan salatu ohi zituzten ilunkeria-egoerak eta mesedeko tratua. Ildo

horretan, nolabaiteko babes publikoko araubide-ren bati loturiko etxebizitzen eraikuntzarako lurza-ti-salmentak ere lehiaketa publiko, objektibo eta gardeneko sistema bat merezi du, interes oroko-rraren mesedetan eta, beraz, herritarren mesede-tan izanen baita. Xedea da Lurraldearen Antola-mendu eta Hirigintzari buruzko 35/2002 Foru Legeko 228 artikuluko 2. idatz-zatiko gaur egungo b) letrak sindikatuei eskaintzen dien abantaila-sis-tema gainditzea, zuzeneko salmenta bidez lurzati-ak esleitzen baitzaizkie, lehiaketa publikorik gabe.

Zortzi urteko ibilbidean, esperientziak erakutsi du sindikatuentzako abantaila hori ez dela eragin-korra izan herritarrentzat, ez baitu etxebizitza babestu gehiagorik ekarri, ez eta babesturiko etxebizitzaren erosleak ordaintzen duen guztizko prezioaren murrizketarik ere. Sindikatuak eraikita-ko etxebizitza babestuaren esleipen-hartzaileak etxebizitza hori erosi dute enpresa pribatuek eraiki-tako etxebizitza babestuaren prezio berean.

Beraz, ondorioztatzeko modukoa da adminis-trazio publikoek lurzatiak sindikatuei zuzenean esleitzean eginiko esfortzuak ez duela herritarren-tzat eragin positiborik izan. Horregatik, egokia eta beharrezkoa da nolabaiteko babes publikoko arau-bideren bati loturiko etxebizitzak eraikitzeke lurza-tien salmenta egitea lehiaketa publiko bidez, bal-dintza-berdintasunean, eta sindikatuentzako abantailak desagerraraztea, objektibotasun-, publizitate- eta gardentasun-printzipioekiko kohe-rentziari eutsiz, printzipio horiek zaindu behar dutelako, kudeaketa publikoan, herritarren interes orokorarentzako mesedea.

**Artikulu bakarra.** Lurraldearen Antolamendu-ari eta Hirigintzari buruzko 35/2002 Foru Legeko 228. artikuluko 2. idatz-zatiko b) letra kentzen da.

**Azken xedapena.** Foru lege honek indarra hartuko du argitaratu eta biharamunean.

## **Foru Lege proposamena, Haurrentzako eta Nerabeentzako Sustapenari, Laguntzari eta Babesari buruzko abenduaren 5eko 15/2005 Foru Legea aldatzen duena.**

### *ZUZENKETAK AURKEZTEKO EPEA*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2010eko apirilaren 26an egindako bilkuran, Erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

Legebiltzarrak, 2010eko otsailaren 18an egindako Osoko Bilkuran, Haurrentzako eta Nerabeentzako Sustapenari, Laguntzari eta Babesari buruzko abenduaren 5eko 15/2005 Foru Legea aldatzen duen Foru Lege proposamena aintzat hartzea erabaki zuen. Proposamen hori Socialistas del Parlamento de Navarra parlamentu-taldeak aurkeztu eta 2009ko azaroaren 13ko 113. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Hori horrela, Legebiltzarreko Erregelamenduko 147. artikuluan ezarritakoarekin bat, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, hona

#### **ERABAKIA:**

**1.** Haurrentzako eta Nerabeentzako Sustapenari, Laguntzari eta Babesari buruzko abenduaren

5eko 15/2005 Foru Legea aldatzen duen Foru Lege proposamena prozedura arruntari jarraikiz izapidetzea.

**2.** Proposamen horri buruz irizpena emateko ahalmena Familia, Gazteria, Kirol eta Gizarte Gaietako Batzordearen esku uztea.

**3.** Erabaki hau Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

Erabaki hau argitaratzen denetik **hamabost egun balioduneko epea hasiko da eta 2010eko maiatzaren 24ko eguerdiko hamabietan bukatuko da.** Epe horretan, Erregelamenduko 127. eta 147. artikuluetan ezarritakoarekin bat, parlamentu-taldeen eta foru parlamentarien zuzenketak aurkeztu ahalko dizkiote proposamenari.

Iruñean, 2010eko apirilaren 26an

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

---

**E saila:**  
**JABELDURAK, MOZIOAK ETA ADIERAZPEN POLITIKOAK**

---

**Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernuak premiatzen da Nafarroako Bidaiarien Garraioari buruzko Planaren proposamena igor dezan, Parlamentuan eztabaidatzeko eta onesteko.**

*NAFARROA BAI PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTU DU*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2010eko apirilaren 26an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Nafarroa Bai parlamentu-taldeak aurkezturiko mozioa, zeinaren bidez Nafarroako Gobernuak premiatzen baita Nafarroako Bidaiarien Garraioari buruzko Planaren proposamena igor dezan, Parlamentuan eztabaidatzeko eta onesteko.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Mozioa Osoko Bilkuran eztabaidatzea eta zuzenketak aurkezteko epea bukatzea eztabaidari ekiteko bilkura-egunaren aurrekoaren eguerdiko hamabietan.

Iruñean, 2010eko apirilaren 26an

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

**MOZIOAREN TESTUA**

Nafarroa Bai parlamentu-taldeko foru parlamentari Patxi Zabaletak eta Maiorga Ramírez Errok, talde horretako eledun gisa eta Legebiltzarreko Erregelamenduaren 195. artikulua eta hurrengoaren babesean, honako mozio hau aurkez-

tu dute, Osoko Bilkuran eztabaidatu eta bozkatzeko:

Zioen azalpena:

2008ko ekainaren 25ean, Nafarroako Gobernu Herri Lan, Garraio eta Komunikazio kontseilari Alba andreak publikoki eman zuen Nafarroako Bidaiari Garraioari buruzko Plan Integralaren abiaraztearen berri. Egun hartan iragarri zen plan horren idazketa esleitu zela, hura abiarazteko lehenengo urrats gisa.

2012an bukatzen dira gaur egun bidaiari-garraioaren kudeaketarako indarrean dauden 39 emakidak.

Bi urte igaro dira Nafarroako Gobernuak hura errealitate bat izateko inolako urrats edo zantzu eraginkorrik eman gabe; horrenbestez, parlamentu-talde honek honako erabaki-proposamena aurkeztu du:

Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernuak premiatzen du bost hilabeteko epean Parlamentuari aurkez diezaion, eztabaidatzeko eta bozkatzeko, Nafarroako Bidaiari Garraioari buruzko Plan Integralaren proposamena.

Iruñean, 2010eko apirilaren 15ean

Foru parlamentariak: Patxi Zabaleta eta Maiorga Ramírez Erro

## **Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da Sexu- eta ugalketa-osasunari eta haurdunaldiaren borondatezko etendurari buruzko Lege Organikoaren aurkako konstituziokontra-suneko erre-kurtsoa erretira dezan.**

### *SOCIALISTAS DEL PARLAMENTO DE NAVARRA PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTU DU*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2010eko apirilaren 26an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

**1.** Izapidetzeko onartzea Socialistas del Parlamento de Navarra parlamentu-taldeak aurkezturiko mozioa, zeinaren bidez Nafarroako Gobernua premiatzen baita Sexu- eta ugalketa-osasunari eta haurdunaldiaren borondatezko etendurari buruzko Lege Organikoaren aurkako konstituziokontra-suneko erre-kurtsoa erretira dezan.

**2.** Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

**3.** Mozioa Osoko Bilkuran eztabaidatzea eta zuzenketak aurkezteko epea bukatzea eztabaidari ekiteko bilkura-egunaren aurrekoaren eguerdiko hamabietan.

Iruñean, 2010eko apirilaren 26an

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

### **MOZIOAREN TESTUA**

Socialistas del Parlamento de Navarra parlamentu-taldeak, Legebiltzarreko Erregelamenduan xedatuaren babesean, ondoko mozioa aurkeztu du, Legebiltzarreko Osoko Bilkuran eztabaidatu eta bozkatzeko. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da Sexu- eta Ugalketa-osasunari eta Haurdunaldiaren Borondatezko Etendurari buruzko Lege Organikoa bete dezan eta lege horri aurkezturiko konstituziokontra-kotasuneko erre-kurtsoa erretira dezan.

Zioen azalpena

Espainiako Gobernuak Sexu- eta Ugalketa-osasunari eta Haurdunaldiaren Borondatezko Etendurari buruzko Lege Organikoa onetsi zuen, zeresana daukaten honako hiru ministerio haue-tan prestatua izan zena: Berdintasuneko, Osasuneko eta Justiziako.

Lege hau lan sendo baten emaitza da, erakunde guztiekin eta gizarte- eta lanbide-sektore ezberdinekin irekitasunez eginikoa, Diputatuen Kongresuan helburu horrekin eraturiko azpibatzorde parlamentario nahiz adituen batzordearen bitartez.

Horrela, informazio- eta elkarrizketa-prozesuan zehar, Gobernuak besteak beste honako entitate hauei entzun zien: emakumeen elkarteei, Espainiako Familia Plangintzaren Federazioari, Espainiako Kontrazepzio Elkarteari, Provida elkarte-federazioari, Espainiako Gazteriaren Kontseiluari, Ezgaituen Ordezkarien Espainiako Konfederazioari, eta Kataluniako Bioetika Batzordeari.

Horrez gain, Espainiako Gobernuak kontuan hartu zituen, aurreproiektua aurkeztu ondoren, Kontseilu Fiskalak prestatuturiko txostenak, bai onetsitako txostena, bai eta Botere Judizialaren Kontseilu Nagusiko gutxiengoak eginikoa ere; eta, azkenik, kontuan hartu zen, arreta handiz hartu ere, Estatu Kontseiluaren txostena.

Lege berri horrek bermatu egiten du haurdunaldiaren borondatezko etendura egiteko aukera eskuratzea, horretarako eskaera egiten duen emakumearen oinarritzko eskubideak babestuz.

Haurdunaldiaren borondatezko etenduraren prestazioa Osasun Sistema Nazionalaren zerbitzu-zorroaren barrenean dago; beraz, prestazio publiko eta doakoa da.

Orain arte, Nafarroako Gobernuak Foru Komunitateko osasun-profesionalen kontzientzia-eragozpena erabiltzen zuen argudiotzat gure erkidegoan osasun-zerbitzu hau ez emateko, era horretan ez adituarena eginez Nafarroako Gobernuaren jarreraren aurka Parlamentuan onetsitako ekimen ugari, eta Nafarroako emakumeei beste erkidego batzuetarako erromesaldi latz eta zaila inposatuz.

Gaur den egunean, eta lege berri hau dela medio, bermaturik gelditzen da Nafarroako emakumeek eskubidea izanen dutela prestazio hori eskuratzeko, horretarako gure erkidegotik kanpora joan behar izan gabe, eta lurralde berean bateragarri egiten da osasun-sistemako profesionalen kontzientzia-eragozpena.

Eta, hain zuzen ere, Nafarroa Estatuan bereizgarri egiten zuen oztopo hau gainditu den une honetantxe, Nafarroako Gobernuak konstituziokontra-kotasun-errekurtsoa aurkeztu du, era horretan Nafarroako emakumeak berriro ere behartuta egon daitezten, gaizkileak bailiran, beste erkidego batera emigratzera, zertarako eta Estatuko lege organiko baten babesa duen osasun-zerbitzu bat jasotzeko.

Lege hori konstituzionala da, Estatu Kontseiluak aho batez onetsiriko irizpenak adierazten duen bezala, ez baita bateraezina Konstituzio Auzitegiak Konstituzioko 15. artikuluari buruz egin duen interpretazioarekin.

Estatu Kontseiluaren jarrerarekin bat datorren legedi berriak aintzat hartzen du ezen umekiaren babesa, haurdunaldi guztian zehar baina, oso bereziki, haurdunaldiaren lehenbiziko hilabeteetan, ezin dela bilatu edo lortu emakume umedunaren aurka, baizik eta harekin batera.

Estatu Kontseiluak adierazten duenez, errespetatu egiten da Konstituzioko balio hura, zeinak justifikatzen duen emakumea izatea bere haurdunaldiaren jarraipenari buruzko azken erabakia hartuko duena (Giza Eskubideen Eruopako Auzitegiaren epaia, 2007ko martxokoa); horrenbestez, kontua ez da eskubide berri bat aitortzea, baizik eta emakume haurdunaren jokabide zilegiaren mugapean bermatzea hark intimitaterako duen eskubide orokorra.

Estatu Kontseiluak bere irizpenean orobat aipatzen du ez dela logikoa emakume haurdunari borondate maltzurrik egozte, ez eta arbitrario

ere, bere haurdunaldiaren jarraipenari buruzko erabakia hartzean. Halaber esaten du ezen, suposamendu orokor modura, ez dela erraz irudikatzen emakume bat berariaz haurdun gelditzea abortatzeko asmoz, edo emakume batek hausnarketarik egin gabe abortatzea; horrela, ba, emakumeen erabakimen arduratsua finkatzen du berriro ere.

Horregatik, Socialistas del Parlamento de Navarra parlamentu-taldeak honako mozio hau aurkeztu du:

Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du:

1. Sexu- eta ugalketa-osasunari eta haurdunaldiaren borondatezko etendurari buruzko martxoaren 3ko 2/2010 Lege Organikoa bete dezan.

2. Nafarroako Foru Komunitateko lurraldearen barrenean lege hori osoki aplikatzen dela bermatzen dezan.

3. Lege horri aurkezturiko konstituziokontraotasun-errekurtsua erretira dezan.

Iruñean, 2010eko apirilaren 19an

Foru parlamentaria: Samuel Caro Sádaba

## **Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da ez dadin has Sanferminetako Museoa eraikitzen harik eta bideragarritasun-plan bat egin arte.**

### **SOCIALISTAS DEL PARLAMENTO DE NAVARRA PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTU DU**

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2010eko apirilaren 26an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Socialistas del Parlamento de Navarra parlamentu-taldeak aurkezturiko mozioa, zeinaren bidez Nafarroako Gobernua premiatzen baita ez dadin has Sanferminetako Museoa eraikitzen harik eta bideragarritasun-plan bat egin arte.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Mozioa Osoko Bilkuran eztabaidatzea eta zuzenketak aurkezteko epea bukatzea eztabaidari ekiteko bilkura-egunaren aurrekoaren eguerdiko hamabietan.

Iruñean, 2010eko apirilaren 26an

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

### **MOZIOAREN TESTUA**

Samuel Caro Sádabak, Socialistas del Parlamento de Navarra parlamentu-taldeko eledunaren ondokoak, Legebiltzarreko Erregelamenduko 195. artikuluan eta hurrengoetan xedatuaren babesean, honako mozio hau aurkeztu du Legebiltzarreko Osoko Bilkuran eztabaidatu eta onesteko, zeinaren bidez Nafarroako Gobernua premiatzen baita ez dadin has Sanferminetako Museoa eraikitzen, harik eta bideragarritasun-plan bat egin arte.

Socialistas del Parlamento de Navarra parlamentu-taldeak jotzen du "Sanferminetako Museoa" deritzona bezalako azpiegiturek modua eman lezaketela turismoaren sektorearen dinamizazio ekonomikoa lortzeko eta festaren hedapen eta azterketarako gune bat antolatzeko, baldin eta haren taxuketa, plangintza, gauzatze eta ondoko kudeaketari seriotasunez eta zorrotasunez helitzen bazaie. Eta balizko nahiz etorkizuneko poten-

tzialtasun horiei buruzko uste osoarekin, azpiegitura hau Nafarroa 2010 Planean jasotzeari gure babesa ematen diogu. Orobat, haren eraikuntza zenbait konpromiso politikori baldintzaturik ikusten dugu, zeinak adierazita agertzen baitira PSNk Nafarroako Gobernuarekin iritsitako elkarren ondo-ko akordio hauetan: 2008ko azaroaren 20koa (2009rako aurrekontu-akordioa), 2009ko azaroaren 19koa (2010erako aurrekontu-akordioa) eta 2010eko martxoaren 31koa (ekonomia bultzatzeko eta 2010erako aurrekontu-akordioan nahiz Nafarroa 2012 Planean jasotako gai garrantzitsuak optimizatzeko akordioa).

Hala ere, aipaturiko Nafarroa 2012 Plana presatu eta hari buruzko adostasuna 2008. urtearen hasieran lortu zenetik, bi gertakari aipagarri izan dira: lehenik eta behin, egoera ekonomikoaren bilakaera negatiboak administrazio publikoak behartzen ditu ekimen eta ahalegin sendoagoak izan ditzaten ekonomiarako pizgarriak eta dinamizatzaileak ezartzeko, inbertsio publikoei eutsiz eta are haiek gehituz; aldi berean, alabaina, beharrezkoa gertatzen da lehentasuna eta sustapena neurri handiagoan ematea itzuli ekonomiko handiagoa sor dezakeen ekoizpen-inbertsio izaera daukaten inbertsioei. Hain zuzen ere ezaugarri hori da azterketa bat egitera behartzen duena, non ikertuko baita aurreikusitako inbertsio bakoitzak –eta horien artean, aipaturiko Sanferminetako museoak– ekonomian zer egiazko eragin izateko ahalmena duen, eraikuntza-lanak berak sorturikoaz harago. Horrelako azterlan batek, aldi berean, modua eman behar du inbertsio batzuei beste batzuen aldean lehentasuna ematearen komenigarritasuna aztertzeke, eta errentagarritasun-mailarik altuena eskuratzeko egokienak diren erritmoak antolatzeke. Beraz, Sanferminetako Museoa noiz izanen dugun galdetu aurretik, zuhurra iruditzen zaigu planteamendu serio eta zorrotza egitea, museo horrekin zer lor dezakegun ikusteko.

Bigarrenik, eta igaro den denbora honetan zehar, Nafarroako Gobernuak eta Iruñeko Udalak egin duten kudeaketaren ezaugarriak izan dira inprobisazioa, perspektibarik eta analisisirik eza eta anbizio eskasa; ildo horretan, susmatzekoa da elektoralismoari loturiko presak izan direla tartean, bai eta zenbait erabaki ere, gutzia pertsonalarekin zerikusi handiagoa izan dutenak, interes orokorren defentsan gauzaturiko jardunak exijitzen dituen zentzutasun eta seriotasunarekin baino.

Gogoeta hori, balio-judizio bat izatetik urrun, zeharo egiaztatuta geratu zen joan den asteazkenean, hilak 14, Iruñeko Udalak ekitaldi bat egin zuenean, ustezko “Entzierroaren eta Sanferminen Zentro Tematikoaren kudeaketaren bideragarritasunari

buruzko Plan” bat aurkezteko. Delako plan horrek ezin dio eutsi analisi ekonomikorik azalekoenari ere.

Beste arinkeria, zehazgabetasun, fribolitate eta akats onartezin batzuen artean, honakoak aipa daitezke: ez duela aintzat hartzen inbertsioaren amortizazioa; edo “abiapuntuko hipotesi” gisa ezartzen dituen baieztapen burutsuak direla “irekialdia: 8 ordu. Asteko irekialdi-egunak: 6. Datuak, eurotan”; edo, “maniobra-marjina” ezartzean, hori handitzeko aukeratzat ikusten dituela “ikasleei turismo eta harreman publikoetako praktika-postuak” eskaintzea eta “zergak aintzat hartzea”; edo bisitarien buruzko bi hipotesiak ezartzen direla Iruñeak museoarik gabe jadanik jasotzen dituen turistek kopuruari portzentaje batzuk aplikatuz, axolarik erakutsi gabe Sanferminetako Museoari esker zenbat turista gehiago etor litezkeen jakiteko kalkulak egiteko.

Ez dakigu delako “bideragarritasun-plan” hori egin ote den Comptos Ganberak halakorik ez egoteari buruz kritika egin ondoren, ala Nafarroako Gobernuak iradoki duelako, haren finantzaketaren % 80 Foru Komunitatearen kargura denez gero, ala egiazki horixe delako Iruñeko Udaleko gobernu-taldeak duen kudeaketa-ahalmen asaldagarria. Nolanahi dela ere, edukia da parlamentu-talde hau oraingo ekimena aurkeztera bultzatu duena, gure ustez ezin onartuzkoa baita foru-exekutiboak bere jarrera pasibo eta eragingabeari eusten segitzea, besterik gabe mugatuz museo bat ordaintzera, zeinari buruz ez baitaki nolakoa izanen den, ez eta turismoaren sektorea nahiz ekonomia nola dinamizatuko dituen ere.

Bi hausnarketa-gai horien ondoriozko ekimen honetan planteatzen da, Nafarroako Gobernuari zorrotzasun, seriotasun eta hitzartuarekiko leialtasun handiagoak exijitzearekin batera, Sanferminetako Museoa soil-soilik egitea baldin eta aurretiaz bete badira hitzarturiko konpromisoak, bai eta inbertsio horren errentagarritasun ekonomiko eta soziala ziurtatze aldera zentzutasun hutsak ezartzen dituen betebeharrak ere. Eta, bide horretatik, gure nahia da museo hori egin aurretik zinezko bideragarritasun-plan bat prestatzea, gutxienez ere honakoak jasoko dituen: inbertsioen amortizazioa, azterlan sozioekonomiko bat, kudeaketaren ustiapena, eta itzuli ekonomikoari buruzko aurreikuspenak. Halaber, aurretiaz fundazio bat eratu behar da, zeinaren patronatuaren gehiengoaren gidaritzan Nafarroako Gobernuarena izan beharko baita. Fundazio horrek egin beharko du abiarazpenerako ekintza guztien gaineko zuzendaritzalana, eta kudeaketaren ardua beharko du hartu.

Azkenik, gure ustea da ezinbesteko bi jardun horiei ekin behar zaiela aipaturiko museoaren eraiki-



tzeko xedea duen edozein lan edo enkargu kontratatu aurretik, eta, nolahi dela ere, eraikuntzalanari ekin aurretik. Horrek esan nahi duena da Nafarroako Gobernuak ere, berari dagokionez, ez duela erabili behar 2010eko aurrekontuetan jasotako 8,5 milioi euroko diru-zenbatekoa. Guztiz argi esatearren, ezin da Sanferminetako Museorik egon, ez badira alde aurretik premisa horiek betetzen; beraz, bitarte horretan eraikuntza-lana eten egin behar da.

Arrazoizkoa dirudi, era berean, aipaturiko bideragarritasun-planaren eta eratu behar den fundazioaren edukari eta norainokoari buruz parlamentu-adostasunik handiena lortu behar dela, *sine qua non* baldintza gisa ere.

Hori guztia dela-eta, Socialistas del Parlamento de Navarra parlamentu-taldeak ondoko erabaki-

proposamena aurkeztu du, Parlamentuaren Osoko Bilkuran eztabaidatu eta onesteko:

Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernu premiatzen du ez dadin has "Sanferminetako Museoa" deritzona eraikitzen harik eta bideragarritasun-plan bat egin arte –plan horrek mozio honen azalpenean adierazitako ezaugarriak izanen ditu–, eta, era berean, fundazio bat eratu arte –haren abiarazpenerako ekintza guztien zuzendaritzalana egingen du eta kudeaketaz arduratuko da–. Halaber premiatzen du hala planaren nola fundazioaren edukia eta norainokoa parlamentu-adostasunik handienarekin taxutu eta gauzatzera.

Iruñean, 2010eko apirilaren 20an

Foru parlamentaria: Samuel Caro Sádaba

## **Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernuko lehendakariari eskatzen zaio Osasuneko kontseilaria kargutik ken dezan, baldin eta hark dimisioa ematen ez badu.**

### **NAFARROA BAI PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTU DU**

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2010eko apirilaren 26an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Nafarroa Bai parlamentu-taldeak aurkezturiko mozioa, zeinaren bidez Nafarroako Gobernuko lehendakariari eskatzen baitzaio Osasuneko kontseilaria kargutik ken dezan, baldin eta hark dimisioa ematen ez badu.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Mozioa Osoko Bilkuran eztabaidatzea eta zuzenketak aurkezteko epea bukatzea eztabaidari ekiteko bilkura-egunaren aurrekoaren eguerdiko hamabietan.

Iruñean, 2010eko apirilaren 26an

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

### **MOZIOAREN TESTUA**

Foru parlamentari Patxi Zabaleta Zabaletak eta Maiorga Ramírez Errok, Nafarroa Bai parlamentu-taldeko eledunek, Legebiltzarreko Erregelamenduen 195. artikuluen eta hurrengoaren babesean,

honako mozio hau aurkeztu dute, Osoko Bilkuran premiaz eztabaidatu eta bozkatzeko:

Nafarroako gizartea eta eragile politiko, sozial eta sindikalak sutsutasun handiz eta dauden premiez jabeturik aldaketa sakona eta berehalakoa eskatzen ari dira osasun-sistema publikoaren kudeaketarako, arrazoi askorengatik, hala nola Osasun kontseilari Kutz andrea aurrera eramaten ari den kudeaketaren defizitak, hark harturiko jarrerak eta arazorik larrienen soluziorik eza. Hala-ko muturreraino iritsi da afera, non jadanik ez baita posible inolako soluziorik.

Hori dela-eta, ondoko erabaki proposamena aurkeztu dugu:

Nafarroako Parlamentuak adierazten du beharrezkoa dela Osasun kontseilari María Kutz andreaken dimisioa, eta beraz, horretarako eskakera egiten du.

Halakorik ezean, Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernuko lehendakari Sanz jaunari eskatzen dio ezen, María Kutz andreak bere kasa dimititzen ez badu, kargutik ken eta ordeztu dezala.

Iruñean, 2010eko apirilaren 22an

Foru parlamentariak: Patxi Zabaleta Zabaleta eta Maiorga Ramírez Erro

## **Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernuari kargu hartzen dio, erakundeen erabilera sektarioa egiteagatik eta Parlamentu honen gehiengoarekiko duen intsumisio-jarrerarengatik.**

### *ION ERRO ARMENDÁRIZ JAUNAK AURKEZTU DU*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2010eko apirilaren 26an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

**1.** Izapidetzeko onartzea Ion Erro Armendáriz jaunak aurkezturiko mozioa, zeinaren bidez Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernuari kargu hartzen baitio, erakundeen erabilera sektarioa egiteagatik eta Parlamentu honen gehiengoarekiko duen intsumisio-jarrerarengatik.

**2.** Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

**3.** Mozioa Osoko Bilkuran eztabaidatzea eta zuzenketak aurkezteko epea bukatzea eztabaidari ekiteko bilkura-egunaren aurrekoaren eguerdiko hamabietan.

Iruñean, 2010eko apirilaren 26an

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

### **MOZIOAREN TESTUA**

Izquierda Unida de Navarra-Nafarroako Ezker Batua foru parlamentarien elkarteko parlamentari Ion Erro Armendárizek, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako mozio hau aurkeztu du:

Zioen azalpena

Nafarroako Gobernuak, joan den apirilaren 19an eginiko bilkuran, erabaki zuen izapideak egin hastea Sexu- eta ugalketa-osasunari eta haurdunaldiaren borondatezko etendurari buruzko Legearen aurkako konstituziokontakotasun-errekurtsoa aurkezteko.

Ildo horretatik, Nafarroako Gobernuak erabaki zuen Nafarroako Kontseiluari presako bidetik eskatzea nahitaezkoa den txostena.

Osasun kontseilari María Kutzek iragarri zenez, errekurtsua legeko bosgarren xedapen gehigarriaren kontra aurkeztuko da. Xedapen horrek ezartzen du autonomia-erkidegoetako osasun-agintariei dagokiela beren lurraldean bermatzea haurdunaldiaren borondatezko etendurarako eskubidea erabili ahal izatea.

Berriro ere, Nafarroako Gobernuak bere aurreiritzi ideologikoak lehenesten ditu Nafarroako ema-

kumeek legeaz aitortuta dauzkaten eskubideak erabiltzearen aldean; kasu honetan, haurdunaldiaren borondatezko etendurarako eskubidea.

Ez da jarrera berria; izan ere, arlo honetan Nafarroako eskuinak hamarkadak daramatza legeen betetzea bere jarrera alderdizaleari azpiratuz, Nafarroako emakumeen eskubideen kaltetan.

IUN-NEBen uste dugu Nafarroako Gobernuaren jarrera horrek gainditu egiten dituela eztabaidaren eta kontrajarpen politikoaren muga zilegiak.

Nafarroan urte asko daramatzagu afera hone-tan ikusten nola eskuinak modu sektarioan erabiltzen dituen erakundeak eta Gobernuak, bere ideologia gizartearen osotasunari inposatzen saiatzeko eta Nafarroan haurdunaldiaren borondatezko etendurarako eskubidearen erabilera normala eta betea ukatzeko.

Jarrera honen azken adibidea da konstituziokontakotasun-errekurtso horren iragarpena, Nafarroako Gobernuak bai baitaki Parlamentuan ordezkaturiko Nafarroako gizartearen gehiengo demokratikoak errekurtsu hori aurkeztea arbuia-tzen duela, eta Sexu- eta ugalketa-osasunari eta haurdunaldiaren borondatezko etendurari buruzko Legearen betetze erabatekoa eta leiala exijitzen duela.

Ondorioz, politikoki izugarri larria den egoera baten aurrean gaude.

Aurrez aurre daukagu erakundeen erabilera sektarioa eta Nafarroako Gobernuaren intsumisioa legearen betetze erabateko eta leialaren aurka.

Lege horrek eskubideak aitortzen ditu sexu- eta ugalketa-osasunaren arloan, eta oraingo egoerak Nafarroako emakumeak lege-babesik gabe uzten ditu, eta Estatuko gainerako emakumeekiko diskriminatuta.

Hori guztia dela-eta, ondoko erabaki proposa-mena aurkeztu dugu:

**1.** Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernuaren osotasunari kargu hartzen dio, erakundeen erabilera sektarioa egiteagatik haurdunaldiaren borondatezko etendurarako eskubidearen erabilerari dagokionez, eta Parlamentu honen gehiengoarekiko duen intsumisio-jarrerarengatik, zeren eta behin baino gehiagotan exijitu baitu Parlamentuak

arlo honetan indarrean dagoen legediaren betetze erabateko eta leiala.

2. Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernuari exijitzen dio erabat eta leialki bete dezala Sexu- eta ugalketa-osasunari eta haurdunaldiaren borondatezko etendurari buruzko Legea, beha-

rrezkoak diren bitartekoak ipiniz eskubide hori Foru Komunitateko osasun-sistema publikoan gauzatu ahal izateko, eta ez dezala lege horren aurka konstituziokontraotasun-errekurtsorik aurkez.

Iruñean, 2010eko apirilaren 23an

Foru parlamentaria: Ion Erro Armendáriz

---

## **Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da gazteen sexualitatearen arloko osasun laguntza-plana presta dezan.**

### *MOZIOA ERRETIRATZEA*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2010eko apirilaren 26an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

Nafarroa Bai parlamentu-taldeak aurkeztutako ondoko mozioa erretiratu izanaren berri izan zuela adieraztea: "Mozioa. Horren bidez, Nafarroako

Gobernua premiatzen da gazteen sexualitatearen arloko osasun laguntza-plana presta dezan"

Mozio hori 2010eko apirilaren 23ko 44. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2010eko apirilaren 26an

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

---

## **Adierazpen instituzionala. Horren bidez, Nafarroako Parlamentuak HMEA 2010 Manifestuarekin bat egiten du, "Hezkuntzaren aldeko gol bat" kanpainaren barruan.**

### *ELEDUNEN BATZARRAK ONETSIA*

2010eko apirilaren 26an egindako bilkuran, Nafarroako Parlamentuko Eledunen Batzarrak ondoko adierazpena onetsi zuen:

"Nafarroako Parlamentuak bat egiten du HMEA 2010 Manifestuarekin, 'Hezkuntzaren aldeko gol

bat' kanpainaren barruan, zeina Hezkuntzaren aldeko Mundu Kanpainak bultzatzen eta mundu osoko kirolariek babesten baitute"

Iruñean, 2010eko apirilaren 26an

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

---

**F saila:**  
**GALDERAK**

---

**Galdera, Beriaingo kontsultategiari buruzkoa.***ASUN FERNÁNDEZ DE GARAIALDE ANDREAK EGINA*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2010eko apirilaren 26an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

**1.** Izapidetzeko onartzea Asun Fernández de Garaialde andreak aurkeztutako galdera, Beriaingo kontsultategiari buruzkoa.

**2.** Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

**3.** Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2010eko apirilaren 26an

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

**GALDERAREN TESTUA**

Nafarroa Bai parlamentu-taldeko foru parlamentari Asun Fernández de Garaialde andreak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, ondoko galdera aurkeztu du, Nafarroako Gobernuko Osasun kontseilariak Osoko Bilkuran ahoz erantzun dezan:

Eginen al du zure departamentuak kontsultategi berri bat Beriainen, edo ehuneko ehunerainoko diru-laguntza emanen al du, hura egin dadin?

Iruñean, 2010eko apirilaren 19an

Foru parlamentaria: Asun Fernández de Garaialde

**Galdera, Zizur Nagusiko liburutegia goizetan ixteari buruzkoa.***PATXI TELLETXEA EZKURRA JAUNAK EGINA*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2010eko apirilaren 26an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

**1.** Izapidetzeko onartzea Patxi Telletxea Ezkurra jaunak aurkeztutako galdera, Zizur Nagusiko liburutegia goizetan ixteari buruzkoa.

**2.** Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

**3.** Vianako Printzea Erakundea-Kultura eta Turismo Batzordean izapidetzea.

Iruñean, 2010eko apirilaren 26an

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

**GALDERAREN TESTUA**

Patxi Telletxea Ezkurak, Nafarroa Bai taldeko parlamentariak, Nafarroako Parlamentuko araudiaren xedatutakoaren arabera, Zizur Nagusiko liburutegia dela-eta, ondoko galdera egiten du, Nafarroako Gobernuko Kultura eta Turismo Departamentuko Kontseilariak ahoz erantzun diezaien Kultura eta Turismo Batzordean.

Duela gutxi arte Zizur Nagusiko liburutegi publikoak goizez eta arratsalde zabalitzen zituen ateak. Zer dela-eta ezin ditu egun goizez ateak ireki? Zer egin du Nafarroako Gobernuak egoera hori gerta ez zedin?

Iruñean, 2010eko apirilaren 20a

Foru parlamentaria: Patxi Telletxea Ezkurra

## **Galdera, antzerki amateurraren garapenari eta sustapenari buruzkoa.**

### *PATXI TELLETXEA EZKURRA JAUNAK EGINA*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2010eko apirilaren 26an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Patxi Telletxea Ezkurra jaunak aurkeztutako galdera, antzerki amateurraren garapenari eta sustapenari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Vianako Printzea Erakundea-Kultura eta Turismo Batzordean izapidetzea.

Iruñean, 2010eko apirilaren 26an

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

### **GALDERAREN TESTUA**

Nafarroa Bai parlamentu-taldeko foru parlamentari Patxi Telletxea Ezkurra, Legebiltzarreko Erregelamenduaren babesean, honako galdera hau aurkeztu du, Nafarroako Gobernuak Parlamentu honetako Kultura eta Turismo Batzordean ahoz erantzun dezan:

Zer ekintza zehatz egin ditu iraganean eta egiten ari da gaur egun Kultura eta Turismo Departamentua gure erkidegoan antzerki amateur garatu eta sustatzeko? Zenbateko aurrekontua jarri da ekintza horietarako 2010eko ekitaldian? Eta aurreko ekitaldietan?

Iruñean, 2010eko apirilaren 22an

Foru parlamentaria: Patxi Telletxea Ezkurra

## **Galdera, Gas naturala Ega ibarrera eramateari buruzkoa.**

### *SAMUEL CARO SÁDABA JAUNAK EGINA*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2010eko apirilaren 26an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Samuel Caro Sádaba jaunak aurkeztutako galdera, Gas naturala Ega ibarrera eramateari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2010eko apirilaren 26an

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

### **GALDERAREN TESTUA**

Socialistas del Parlamento de Navarra parlamentu-taldeari atxikitako foru parlamentari Samuel Caro Sádaba jaunak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako ahozko galdera egin du, Egaibarreko (Estellerría) gas

hornidurari buruz, Osoko Bilkuran erantzun diezaitoten.

Zioen azalpena

Iragan den azaroan, eta zegokion batzordean, Nafarroako Parlamentuak mozio bat onetsi zuen, gure parlamentu-taldeak aurkezturikoa. Haren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen zen Nafarroan gas-hornidura ematen duten enpresekin formula batzuk hitzartzera, gas naturala eta, horrenbestez, gas-hornidura Egaibarrera, Estellerrira, irits dadin.

Berriki bide beretatik jakin dugu Nafarroako beste toki batzuetan antzeko arazo batzuei konponbidea eman zaiela. Eta pozten gara horregatik. Aurrekoa ikusirik, hauxe jakin nahi dut:

- Zer urrats egiten ari da Nafarroako Gobernua Egaibarren eskaera hori bete dadin, eta zein epe aurreikusi dira hornidura hori egiaz eman dadin?

Iruñean, 2010eko apirilaren 21ean

Foru parlamentaria: Samuel Caro Sádaba

## **Galdera, nekazaritzan ongarrri organikoaren erabilera sustatze aldera Landa Garapeneko eta Ingurumeneko Departamentuak darabilen politikari buruzkoa.**

*MARÍA GRACIA IRIBARREN RIBAS ANDREAK EGINA*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2010eko apirilaren 26an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea María Gracia Iribarren Ribas andreak aurkeztutako galdera, nekazaritzan ongarrri organikoaren erabilera sustatze aldera Landa Garapeneko eta Ingurumeneko Departamentuak darabilen politikari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2010eko apirilaren 26an

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

### **GALDERAREN TESTUA**

Socialistas del Parlamento de Navarra parlamentu-taldeko foru parlamentari M.<sup>a</sup> Gracia Iribarren Ribas foru parlamentariak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako galdera hau aurkeztu dio Landa Garapenerako eta Ingurumeneko kontseilariari, Parlamentuaren Osoko Bilkuran ahoz erantzun dezan.

Zein da buru zaren Landa Garapeneko eta Ingurumeneko Departamentua egiten ari den politika zehatza nekazaritzan ongarrri organikoaren erabilera sustatze aldera?

Iruñean, 2010eko apirilaren 22an

Foru parlamentaria: María Gracia Iribarren Ribas

## **Galdera, adineko mahastiei buruzko lanak Tracasari emateko irizpideei buruzkoa.**

*MARÍA GRACIA IRIBARREN RIBAS ANDREAK EGINA*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2010eko apirilaren 26an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea María Gracia Iribarren Ribas andreak aurkeztutako galdera, adineko mahastiei buruzko lanak Tracasari emateko irizpideei buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Landa Garapenerako eta Ingurumeneko Batzordean izapidetzea.

Iruñean, 2010eko apirilaren 26an

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

barren Ribas andreak, Legebiltzarreko Erregelamenduko 186. artikuluan eta hurrengoetan ezarritakoaren babesean, honako galdera hau aurkeztu du, Landa Garapeneko eta Ingurumeneko Departamentuak batzordean ahoz erantzun dezan:

- Zein irizpide erabili ditu eta zein jarraibide eta helburu hartu ditu aintzat departamentuak Tracasari adineko mahastiei buruzko lanak emateko? Zertan da lan hori? Egin beharreko lanean, sartu al da Errioxako Jatorrizko Deitura Kalifikatuan dauden mahastiak aztertzea? Lan hori amaituta baldin badago, zein ondorio atera daitezke hartatik? Hartuko al du departamentuak neurriren bat mahasti horiek direla eta?

Iruñean, 2010eko apirilaren 22an

Foru parlamentaria: María Gracia Iribarren Ribas

### **GALDERAREN TESTUA**

Socialistas del Parlamento de Navarra parlamentu-taldeko foru parlamentari María Gracia Iri-

**Galdera, zerri-gizendegiei ezartzen zaizkien betekizunei buruzkoa.***MARÍA GRACIA IRIBARREN RIBAS ANDREAK EGINA*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2010eko apirilaren 26an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea María Gracia Iribarren Ribas andreak aurkeztutako galdera, zerri-gizendegiei ezartzen zaizkien betekizunei buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Landa Garapenerako eta Ingurumeneko Batzordean izapidetzea.

Iruñean, 2010eko apirilaren 26an

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

**GALDERAREN TESTUA**

Socialistas del Parlamento de Navarra parlamentu-taldeko foru parlamentari M.<sup>a</sup> Gracia Iribas

rrren Ribasek, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako galdera hau aurkeztu dio Landa Garapenerako eta Ingurumeneko kontseilariari, Batzordean ahoz erantzun dezan:

- Zergatik exijitzen die departamentuak zerri-gizendegiei mindak zintzilikatutako hodiekin kanporatzeko eta ez die baimenik ematen legeak biltzen dituen gainerako hobekuntza teknikoak erabiltzeko? Aztertu al du departamentuak zenbateko kostua izanen duen egin beharreko inbertsioak abeltzain bakoitzarentzat? Aurreikusi al du departamentuak laguntza zuzenik gaur egun exijitzen ari den teknika horiek ezartzeko?

Iruñean, 2010eko apirilaren 22an

Foru parlamentaria: María Gracia Iribarren Ribas

## **Galdera, Liburutegiei buruzko Foru Legeko IV. kapituluaren ezarritakoa garatzeko jarduketa planari buruzkoa.**

*ROMÁN FELONES MORRÁS JAUNAK EGINA*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2010eko apirilaren 26an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

**1.** Izapidetzeko onartzea Román Felones Morrás jaunak aurkeztutako galdera, Liburutegiei buruzko Foru Legeko IV. kapituluaren ezarritakoa garatzeko jarduketa planari buruzkoa.

**2.** Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

**3.** Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2010eko apirilaren 26an

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

### **GALDERAREN TESTUA**

Socialistas del Parlamento de Navarra parlamentu-taldeko foru parlamentari Román Felones Morrás-ek, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, galdera hau aurkeztu du, Liburutegiei buruzko Foru Legearen garapenari buruzkoa, Osoko Bilkuran ahoz erantzun dadin.

Zioen azalpena

2008ko maiatzaren 8an, sozialisten parlamentu-taldeko kultura eta turismo arloetako eledunak galdera egin zion Gobernuari –Kultura eta Turismo kontseilariak eman zuen erantzuna–, Nafarroako liburutegi sistema arautzen duen azaroaren 19ko 32/2002 Foru Legearen betetze mailari buruz.

Kontseilariak, erantzunean, legea betetzat jo zuen neurri handi batean, baina erantzuna ez zetorren bat sareko profesionalen, sektoreari lotutako pertsonen eta galdera egin zion parlamentu-taldearen ikuspuntuarekin.

Horren aurrean, parlamentu-talde sozialistak mozio bat aurkeztu zion Legebiltzarrari, gobernuaren premiazten zuzena irakurketa publikoaren mapa, zerbitzuen zorroa eta liburutegi publikoaren sistemarako plan estrategikoa aurkez zitzan, legean aurreikusitako bezala.

Halaber, parlamentu-talde sozialistak ahozko galdera bat egin zuen, Nafarroako liburutegi publikoaren sistemaren eta Foru Komunitateko eskola liburutegien eta irakasleei laguntzeko zentron arteko hitzarmenen zerrenda eskatzeko.

Galdera horri ekainaren 25ean eman zion erantzuna Carlos Pérez-Nievas kontseilariak Hezkuntza Batzordean. Izan ere, erantzuna izan zen ez zegoela idatzizko hitzarmenik, baina ez zegoela inolako arazorik bi departamentuen menpeko liburutegien arteko hartu-emanetan.

Azkenean, Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernuaren premiazten zuzena Nafarroako Liburutegiei buruzko Foru Legeko IV. kapituluaren gara zezan, eta 2009ko otsailaren 1a ezarri zuen plan hori parlamentura igortzeko muga-egun gisa.

Legebiltzarrak ezarritako epetik urtebete baino gehiago iragan denean, honakoa galdetzen diogu Nafarroako Gobernuari:

- Zergatik ez dio Nafarroako Gobernuak Legebiltzarrari aurkeztu Nafarroako Liburutegiei buruzko Foru Legeko IV. kapituluaren garatzeko jarduketa plan orokorra? Atzerapeneko urtebete baino gehiago iragan denean, ba al du Nafarroako Gobernuak aipatutako plana aurkezteko asmorik? Noiz, gutxi gorabehera?

Iruñean, 2010eko apirilaren 22an

Foru parlamentaria: Román Felones Morrás



## Galdera, ahariaren epididimitis kutsakorrari buruzkoa.

AITOR ETXARRI PELLEJERO JAUNAK EGINA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2010eko apirilaren 26an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Aitor Etxarri Pellejero jaunak aurkeztutako galdera, ahariaren epididimitis kutsakorrari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 192. artikulua agindutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2010eko apirilaren 26an

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

### GALDERAREN TESTUA

Nafarroa Bai parlamentu-taldeko foru parlamentari Aitor Etxarri Pellejero, Legebiltzarreko Erregelamenduan xedatuaren babesean, honako galdera hau egin dio Nafarroako Gobernuari, idatziz erantzun diezaiola:

Iragarri denez, Baztango bi artalde berrogeialdian ibilgetuta daude, epididimitis kutsakor edo aharien gaitz gisa ezagaturiko *brucella ovis*-aren ohiko kontrol banatan, arrei eginikoetan, izandako emaitza positiboaren ondoriozko prebentzio-neurri gisa. Hori horrela, parlamentari honek ondokoa jakin nahi du:

- Zein da gaur egungo egoera Nafarroan, gaitxotasun horri dagokionez?

Iruñean, 2010eko apirilaren 19an

Foru parlamentaria: Aitor Etxarri Pellejero

## Galdera, Leitzako institutuko hobekuntza lanei buruzkoa.

AITOR ETXARRI PELLEJERO JAUNAK EGINA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2010eko apirilaren 26an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Aitor Etxarri Pellejero jaunak aurkeztutako galdera, Leitzako institutuko hobekuntza lanei buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 192. artikulua agindutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2010eko apirilaren 26an

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

### GALDERAREN TESTUA

Aitor Etxarri Pellejero, Nafarroa Bai taldeko parlamentariak, Nafarroako Parlamentuko araudi-

an xedatutakoaren arabera, ondoko galdera egiten du, Nafarroako Gobernuak idatziz erantzun diezaiola.

Badirudi, Nafarroako Gobernuak Leitzako institutuko jangelaren teilatuan, institutuko eraikinean, dibertsifikazio tailerrean eta musika gelan hobekuntzak eginen dituela. Lan hauen aurrekontua 111.283,85 eurokoa omen da.

1. Zein da Nafarroako Gobernuak obra hauek egiteko erabiliko duen partida presupuestarioa?

2. Noiz hasiko dira obra hauek?

3. Noizko aurreikusten da obra hauen amaiera?

Iruñean, 2010eko apirilaren 19an

Foru parlamentaria: Aitor Etxarri Pellejero

## **Galdera, Arrúbalen eta Los Arcosen arteko eta Iguzkitzaren eta Murieta- ren arteko linea elektrikoei buruzkoa.**

*AITOR ETXARRI PELLEJERO JAUNAK EGINA*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2010eko apirilaren 26an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

**1.** Izapidetzeko onartzea Aitor Etxarri Pellejero jaunak aurkeztutako galdera, Arrúbalen eta Los Arcosen arteko eta Iguzkitzaren eta Murieta-  
ren arteko linea elektrikoei buruzkoa.

**2.** Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

**3.** Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 192. artikulua agindutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2010eko apirilaren 26an

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

### **GALDERAREN TESTUA**

Nafarroa Bai parlamentu-taldeko foru parlamentari Aitor Etxarri Pellejerok, Legebiltzarreko

Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako galdera hau egin dio Nafarroako Gobernu-ko Landa Garapeneke eta Ingurumeneko Departamentuari, idatziz erantzun diezaion:

Nafarroako Gobernuak 66 kV-ko bi linea elektriko dauzka 2005etik proiektatuta eta onetsita Arrúbal-Los Arcos eta Iguzkitza-Murieta tarteetarako, Cordovilla-Recajo sarearekin uztartzen direnak. Linea horien bitartez, Estellerriko 50.000 biztanleren eta Los Arcos eta Lizarrako industrialdeen energia ziurtatuko litzateke.

- Zein da bi linea elektriko horien gaur egungo egoera?

- Gauzatuko al da proiektua?

- Baiezkoan, noizko aurreikusten da proiektua gauzatzea?

Iruñean, 2010eko apirilaren 22an

Foru parlamentaria: Aitor Etxarri Pellejero

## **Galdera, Arga eta Aragoi ibaiek bat egiten duten lekuan uholdeen aurrean babesteko eta ibaiak lehengoratzeko jarduketei buruzko azterlanaren ondorioei buruzkoa.**

*MARÍA GRACIA IRIBARREN RIBAS ANDREAK EGINA*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2010eko apirilaren 26an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

**1.** Izapidetzeko onartzea María Gracia Iribarren Ribas andreak aurkeztutako galdera, Arga eta Aragoi ibaiek bat egiten duten lekuan uholdeen aurrean babesteko eta ibaiak lehengoratzeko jarduketei buruzko azterlanaren ondorioei buruzkoa.

**2.** Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

**3.** Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 192. artikulua agindutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2010eko apirilaren 26an

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

**GALDERAREN TESTUA**

Socialistas del Parlamento de Navarra parlamentu-taldeko foru parlamentari María Gracia Iribarren Ribas andreak, Legebiltzarreko Erregelamenduko 186. artikuluan eta hurrengoetan ezarritakoaren babesean, honako galdera hau aurkeztu du, Landa Garapeneko eta Ingurumeneko Departamentuak idatziz erantzun dezan:

- Gestión ambiental Viveros y Repoblaciones

enpresari eginarazi zitzaion “Arga eta Aragoi ibaiek bat egiten duten lekuan uholdeen aurrean babes-teko eta ibaiak lehengoratzeko jarduketa-alternati-bei buruzko azterlana” zer ondoriotara iritsi da? Alternatibarik eskaini bada, haietakoren bat abia-razi al da? Zein?

Iruñean, 2010eko apirilaren 22an

Foru parlamentaria: María Gracia Iribarren Ribas

---

**Galdera, Lizarrako adimen-osasuneko egoitza eraikitze-ko aukera baztertu izanari buruzkoa.****GALDERA ERRETIRATZEA**

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2010eko apirilaren 26an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

Ioseba Eceolaza Latorre jaunak aurkezturiko galdera, Lizarrako adimen-osasuneko egoitza

eraikitze-ko aukera baztertu izanari buruzkoa, erre-tiratu izanaren berri izan zuela adieraztea.

Galdera hori 2010eko otsailaren 22ko 18. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara-tu zen.

Iruñean, 2010eko apirilaren 26an

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

---

**H saila:**  
**BESTELAKO TESTU ARAU-EMAILEAK**

---

**3/2010 Legegintzako Foru Dekretua, apirilaren 12koa, Tributu Harmonizazioari buruzkoa, Zerga Bereziei buruzko abenduaren 30eko 20/1992 Foru Legea aldatzen duena.**

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2010eko apirilaren 26an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, hurrengo erabakia hartu zuen, besteak beste:

Ikusita 3/2010 Legegintzako Foru Dekretua, apirilaren 12koa, Tributu Harmonizazioari buruzkoa, Zerga Bereziei buruzko abenduaren 30eko 20/1992 Foru Legea aldatzen duena, eta kontuan harturik Nafarroako Gobernuari eta lehendakariari buruzko 14/2004 Foru Legearen 54. artikulua eta Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduen 160. artikulua, hona erabakia:

**1.** 3/2010 Legegintzako Foru Dekretua, apirilaren 12koa, Tributu Harmonizazioari buruzkoa, Zerga Bereziei buruzko abenduaren 30eko 20/1992 Foru Legea aldatzen duena, ezagutzen duela adieraztea.

**2.** Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

Iruñean, 2010eko apirilaren 26an

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

**3/2010 Legegintzako Foru Dekretua, apirilaren 12koa, Tributu Harmonizazioari buruzkoa, Zerga Bereziei buruzko abenduaren 30eko 20/1992 Foru Legea aldatzen duena.**

Nafarroako Gobernuari eta Lehendakariari buruzko abenduaren 3ko 14/2004 Foru Legeak 54. artikuluko 1. idatz-zatian xedatzen du ezen Hitzarmen Ekonomikoarekin bat, tributu araubide erkidearen aldaketa batek behartzen badu Estatuan unean-unean indarra duten arau berdin-berdinak, hots, funtsez eta formaz berdinak, Foru Komunitatean aplikatzera, Nafarroako Gobernuak, Nafarroako Parlamentuak haren esku utzirik,

behar diren foru legeen mailako arauak ematen ahalko dituela tributu arloko foru legeak aldatzeko.

Aipatu legegintza eskuordetua erabiliz, Nafarroako Gobernuak onesten dituen xedapen horiei Tributu Harmonizaziorako Legegintzako Foru Dekretuaren izena emanen zaie.

Bestalde, Estatuaren eta Nafarroako Foru Komunitatearen arteko Hitzarmen Ekonomikoaren 35.4 artikulua ezartzen du ezen, Foru Komunitateari dagozkion zerga bereziak ordainarazteko orduan, unean-unean Estatu lurraldean indarra duten oinarritzko printzipio, funtsezko arau eta arau formal berak erabiliko dituela. Hala ere, Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioak aitorpena egin eta dirua pagatzeko ereduak onesten ahalko ditu, gutxienez ere araubide erkideko lurraldeko datu berak jasoko dituztenak, eta likidazioaldi bakoitzerako pagatzeko epeak finkatzen ahalko ditu, Estatu Administrazioak ezartzen dituenetatik sobera bereiziko ez direnak.

Martxoaren 1eko 2/2010 Legearen bidez, zeharkako zergen arloko zuzentarau batzuen transposizioa egin eta Ez-egoiliarren Errentaren gaineko Zergari buruzko Legea aldatu zen, Europar Batasuneko araudiari egokitzeko. 2/2010 Lege horren 3. artikuluen bidez, Zerga Bereziei buruzko abenduaren 28ko 38/1992 Legea aldatu da, produktuen zirkulazioaren araubideari dagokionez. Horrez gainera, kontrol sistema informatizatu berri bat jarri da abian, bereziki, iruzurraren, kapital-ihesaren edo abusuaren prebentzioan arreta berezia jartzen duena. Martxoaren 1eko 2/2010 Lege horren bidez, zerga berezien araubide orokorri buruzko Kontseiluaren 2008ko abenduaren 18ko 2008/118/EK Zuzentarauaren transposizioa egin da, barne zuzenbidera ekartzeko.

Zerga berezien xedeko produktuen zirkulazioari buruzko xedapenen aldaketa horren esparruan, aipatzekoa da zergari ez lotzeko beste kasu bat onartu dela, hots, produktuak erabat suntsitzen

direnean edo erremediorik gabe galtzen direnean, betiere produktuek bi baldintza hauek betetzen badituzte: suntsiketa edo galera zein estatukidetan gertatu den, hango agintari eskudunen baimena izatea eta produktuak etendura araubidean egoitea.

Sorrarazpenari dagokionez, zehazten da noiz gertatzen den sorrarazpena egoera berri batzuetan, esate baterako: produktuen zuzeneko entregetan, etendura araubideko produktuen zirkulazioan irregulartasunak daudenean, Batasunaren barreneko zirkulazioan irregulartasunak daudenean, destinoa justifikatzen ez denean edo produktuen zirkulazioan bidegabeko erabilera egiten denean.

Batasunaren barreneko zirkulazioari eta Batasunaren barreneko zirkulazioaren irregulartasunei buruzko artikulua berriro erredaktatu dira. Horrela, etendura araubideko prozedura berriak zehaztu dira eta Batasunaren barreneko etendura araubideko zirkulazioa, oro har, administrazio agiri elektronikoko batek babestuta egin behar dela xedatu da. Agiri hori erregelamenduz ezarriko diren betebeharren arabera tramitatuko da. Zirkulazioa papezko agiri batekin has daiteke, baina bakar-bakarrik sistema informatizatua erabiltzeko moduan ez badago eta erregelamenduz ezartzen diren baldintzak betetzen badira.

Horregatik guztiagatik, beharrezkoa da, lehen aipatutako legegintzarako eskuordetza erabiliz, tributu harmonizaziorako legegintzako foru dekretu baten bidez Zerga Bereziei buruzko abenduaren 30eko 20/1992 Foru Legea aldatzeko behar diren arauak ematea, abenduaren 3ko 14/2004 Foru Legearen 54.1 artikuluekin bat, Estatuarekin sinatutako Hitzarmen Ekonomikoaren 35. artikuluen arabera Nafarroako Foru Komunitateak Estatuko lurraldean indarra duten arau berdin-berdinak -bai funtsari bai formari dagokionez- aplikatu behar dituen kasuak egokitzeko.

Horrenbestez, Ekonomia eta Ogasuneko kontseilariak proposaturik, eta Nafarroako Gobernuak 2010eko apirilaren 12an egindako bilkuran hartutako erabakiarekin bat,

DEKRETATU DUT:

**Artikulu bakarra.** Zerga Bereziei buruzko abenduaren 30eko 20/1992 Foru Legea aldatzea.

Zerga Bereziei buruzko abenduaren 30eko 20/1992 Foru Legearen agindu hauek aldatu eta ondoren azaldu bezala erredaktatuta geldituko dira:

Bat. 5.1 artikulua.

“1. Aurreko artikuluan aipatutako zerga berezien xedeko produktuak Batasunaren lurraldearen barrenean fabrikatzea eta inportatzea zerga berezi horiei lotuta dago.”

Bi. 6. artikuluari 3. zenbakia erantsi zaio.

“3. Fabrikazioaren gaineko zerga berezien xedeko produktuak erabat suntsitzea edo erremediorik gabe galtzea suntsiketa edo galera hori gertatu den estatukideko agintari eskudunen baimenaren ondorioz, betiere produktuak etendura araubidean baldin badaude.

Produktuak erabat suntsitu direla edo erremediorik gabe galdu direla ondorioztatuko da zerga bereziei lotutako produktu gisa erabili ezin badira eta hori frogatzen bada gertatu edo antzeman den estatukideko agintari eskudunak gogobetetzeko moduan.”

Hiru. 7. artikulua.

“7. artikulua. Sorrarazpena.

36. artikuluan ezarritakoa galarazi gabe, zerga sorraraziko da:

1. Fabrikazio kasuetan, fabrikazioaren gaineko zerga berezien xedeko produktuak fabrikatik edo biltegi fisikaletik ateratzen diren unean edo haien autokontsumoa egiten den unean. Dena dela, produktu horiek fabrikatik edo biltegi fisikaletik ateratzeko kasuetan, etendura araubidea aplikatuko da helburua hauetako bat baldin bada:

a) Beste fabrika edo biltegi fiskal batera zuzenean bidaltzen badira, zuzeneko entrega baterako badira, erregistraturik dagoen hartzaile batentzat badira edo esportaziorako badira.

b) Fabrikazioaren gaineko zerga berezien xede ez diren produktuak fabrikatzeko badira, gero esportatzeko, betiere erregelamenduz ezartzen diren baldintzak betetzen badira.

c) Kontseiluaren 2008ko abenduaren 16ko 2008/118/EK Zuzentarauaren 17.1 artikuluko a) letraren iv) idatz-zatian aipatzen diren hartzaileetako batentzat badira. Zuzentaru hori zerga berezien araubide orokorrari buruzkoa da, eta haren bidez 92/12/EEE Zuzentaru indargabetu zen.

2. Erregistraturik dagoen hartzaile batentzako bidalketetan, horrek produktuak destinoko tokian jasotzen dituen unean.

3. Zuzeneko entregetan, zerga sorraraziko da zergari lotutako produktuak zuzenean entregatzeko tokian jasotzen direnean.

4. Fabrikazioaren gaineko zerga berezien xedeko produktuak etendura araubidean zirkulatzen edo edukitzen diren kasuetan, zerga ez ordaintzea dakarten galerak ez, beste batzuk gertatzen diren unean, edo noiz gertatu diren jakiterik ez badago, galera horiek egiaztatzen diren unean.

5. Urrutiko salmenten kasuetan, produktuak hartzaileari entregatzen zaizkion unean.

6. Baimendurik dagoen jasotzaile batentzako bidalketetan, jasotzaileak produktuak destinoko tokian jasotzen dituen unean.

7. Etendura araubideko zirkulazioan irregulartasunik baldin badago, zirkulazioa hasi zen egunean, salbu eta irregulartasuna noiz gertatu zen frogatzen bada. Kasu horretan, orduantxe sorraraziko da zerga.

8. Fabrikazioaren zerga bereziei lotutako produktuen Batasunaren barreneko zirkulazioan irregulartasunik gertatzen bada, eta zerga beste estatukide batean sorrarazten bada, irregulartasuna gertatzen den unean, eta, noiz gertatu den jakiterik ez badago, haren berri jakiten den unean.

9. Fabrikazioaren gaineko zerga berezien xedeko produktuen zirkulazioan destinoa justifikatzen ez bada edo bidegabeko erabilera egin bada, eta produktu horien destinoa dela-eta salbuespen bat edo tasa murriztu bat aplikatu bada, produktuak jasotzeko ahalmena duen hartzaileari entregatzen zaizkion unean, salbu eta bidegabeko erabilera egin den eguna modu frogagarrian frogatzen bada. Horrela eginez gero, orduantxe sorraraziko da zerga.

Produktu horiek jasotzeko ahalmenik ez duen hartzaile bati ematen bazaizkio, zirkulazioa hasi zen unean.

10. Foru lege honen 8. artikuluko 8. zenbakian aipatutako kasuetan, aurreko zenbakietan ezarritakoaren arabera dagokion unean sorraraziko da zerga; une hori ezagutzen ez bada, tributudunak produktuak erosten dituen egunean edo horiek edukitzen hasten den egunean, eta hori ere ezagutzen ez bada, horren berri jakiten denean.

11. Artikulu honetako 1. zenbakian ezarritakoa gorabehera, etendura araubidea aplikatu gabe fabrikatik edo biltegi fiskaletik ateratzen diren produktu guztiak edo zati bat hartzaileari entregatzea ezinezkoa izan bada, eta hori baimena duen igorleari leporatu ezin zaizkion arrazoiengatik izan bada, produktuak atera zireneko establezimenduetan sartzeko ahalgo dira berriz, betiere erregelamenduz ezartzen diren baldintzak betez gero. Horrelakoetan, irteera dela-eta zerga ez zela sorrarazi ondorioztatuko da.”

Lau. 8. artikulua.

“8. artikulua. Tributudunak.

1. Foru lege honen ondorioetarako, tributudunak dira foru lege honen bidez tributu arloko betebeharrak ezartzen zaizkien pertsona fisiko edo juridikoak eta entitateak.

2. Tributudun gisa, hauek dira subjektu pasiboak:

a) Baimena duten gordailuzainak, zergaren sorrarazpena fabrika batetik edo biltegi fiskal batetik ateratzearekin batera gertatzen denean edo autokontsumorako produktuak direnean.

b) Hartzaile erregistratuak, produktuak jasotzekoan sorrarazten den zergari dagokionez.

c) Baimena duten jasotzaileak, haientzat diren produktuak jasotzea dela-eta sorrarazten den zergari dagokionez.

d) Baimena duten gordailuzainak eta hartzaile erregistratuak, zuzeneko entregetan.

3. Subjektu pasibo dira, tributudunen ordeko gisa, zerga berezien araubide erkidea ezartzen duen Legearen 4. artikuluko 28. idatz-zatian aipatzen diren ordezkari fiskalak.

4. Gordailuzain baimenduak behartuta daude tributu zorra ordaintzera, edozein estatukidetara etendura araubidean bidalitako produktuei dagokionez, hartzaileak produktuak jasotzen ez baditu. Horretarako, berme bat jarri beharko dute (erregelamenduz ezarriko da horren zerbatekoa eta egiteko modua), Europako Erkidego osoan balioa izanen duena. Era berean, beste estatukide batzuetako tributudunek, behar den bermea beren estatuan jarri badute, Batasunaren barreneko zirkulazioak egiten direnean beren barne lurralde eremuan gertatzen diren irregulartasunei dagokien tributu zorra Espainian ordaindu beharko dute, haiek bidalitako ondasunei dagokienez.

Gordailuzain baimenduak eta garraiolariak adostu baldin badute idatz-zati honetan arautzen den erantzukizuna konpartitzea, tributu administrazioak garraiolariarengana jotzen ahalko du, erantzule solidario gisa.

Hartzaileak produktuak jaso dituela edo esportazioa egin dela frogatu ondoren, erantzukizuna bukatuko da.

5. Foru lege honen 17. artikuluan aipatzen diren irregulartasun kasuetan, zergaren ordainketaren erantzule solidarioak izanen dira ordainketa bermatu beharra duten pertsona fisiko edo juridikoak eta entitateak, irregulartasunak izan dituen Batasunaren barreneko zirkulazio motaren arabera.

6. Irregularitasuna gertatu bada fabrikazioaren gaineko zerga berezien xedeko produktuen zirkulazioan edo haiei emandako erabileraren edo destinoaren justifikazioan, eta produktu horien destinoa dela-eta zerga salbuespenen batez edo tasa murriztu batez baliatu baldin badira, zerga eta jar daitezkeen zehapenak ordaintzera behartuak egonen dira bidaltzaileak, harik eta produktuak jasotzeko ahalmena duen hartzaileak produktuak jaso dituela justifikatu arte; jaso ondoren, ordaindu beharra hartzaileek izanen dute.

7. Tributu zorra ordaindu beharra izanen dute fabrikazioaren gaineko zerga berezien xedeko produktuak eduki, erabili, merkaturatu edo garraiatzen dituztenek, foru lege honen 16. artikuluan aurreikusitako kasuetatik kanpora, zerga horiek Espainian ordaindu direla frogatzen ez badute.

8. Bidaltzaile erregistratuak behartuta daude tributu zorra ordaintzera, etendura araubidean bidalitako produktuei dagokienez, hartzaileak produktuak jasotzen ez baditu. Hartzaileak produktuak hartu dituela edo esportazioa egin dela frogatu ondoren, erantzukizuna bukatuko da.”

Bost. 11. artikulua.

“11. artikulua. Etendura araubidea azkentzea.

Etendura araubidea honako kasuotan azkendu da, betiere erregelamenduz ezartzen diren baldintzak betetzen badira:

- a) Zerga sorrarazten duen edozein kasutan.
- b) Produktuak esportatzen direnean.”

Sei. 13.2 artikulua.

“2. Aurreko zenbakian xedatutakoa gorabehera, foru lege honen 17.A).2 artikuluan aipatzen diren kasuetan, tasa aplikagarria produktuak bidaltzen direnean indarra duena izanen da.”

Zazpi. 16. artikulua.

“16. artikulua. Batasunaren barreneko zirkulazioa.

1. Fabrikazioaren gaineko zerga berezien xedeko produktuak, partikularrek Batasunaren lurraldeko beste estatukide batean eskuratuak, indarreko zerga estatu hartan ordaindu baldin bada, produktuak norberaren beharrak asetzeko erosi badira eta norberak garraiatu baditu, ez dira barreneko lurralde eremuan indarra duen zergari lotuta egonen, eta haien zirkulazioak eta edukitzak ez du inolako baldintzarik izanen, betiere merkataritzako helburuetarako erabiltzen ez badira.

2. Zerga berezien xedeko produktuak barneko lurralde eremuan garraiatu bitartean erabat suntsi-

tzen badira edo erremediorik gabe galtzen badira etendura araubidetik kanpoko Batasunaren barreneko zirkulazio prozedura batean, eta zirkulazio prozedura hori barnekoa ez den Batasunaren lurralde eremuan hasi bada, barneko lurralde eremuan ez da zerga berezirik sorraraziko.

3. Aurreko 1. zenbakian adierazitako kasuetan gorabehera, fabrikazioaren gaineko zerga berezien xedeko produktuek, jatorria edo destinoa beste estatukide batean baldin badute, barneko lurralde eremuaren barrenean zirkulatuko dute erregelamenduz ezartzen diren baldintzak betez, hauetako prozeduretako baten babesean:

a) Etendura araubidean, fabriken edo biltegi fiskalen artean.

b) Etendura araubidean, erregistraturik dagoen hartzaile batek jasotzeko.

c) Etendura araubidean gordailuzain baimendu baten izenean dagoen establezimendu batetik Batasunaren lurraldetik ateratzeko edozein tokitara, Zerga berezien araubide erkidea ezartzen duen Legearen 4. artikuluko 7. idatz-zatian adierazitako dagoen bezala.

d) Etendura araubidean onuradunaren egoitza ez den estatukide batean ezarritako gordailuzain baimendu baten establezimendutik Kontseiluaren 2008ko abenduaren 16ko 2008/118/EE Zuzentarauaren 12.1 artikulua aipatzen dituen destinoetara. Zuzentarau hori zerga berezien araubide orokorrari buruzkoa da, eta haren bidez 92/12/EEE Zuzentaraua indargabetu zen.

e) Etendura araubidean, inportazioaren tokitik, erregistraturik dagoen bidaltzaile batek bidaliak, produktuak araubide horretan jasotzea baimenduta dagoen toki batera.

f) Etendura araubidean, baimena duen gordailuzain baten establezimendutik zuzeneko entrega egiten den toki batera.

g) Etendura araubidetik kanpora, baimena duen jasotzaile batek jasotzeko.

h) Etendura araubidetik kanpora, urrutiko salmenten sistemaren barrenean.

4. Batasunaren barreneko zirkulazioa etendura araubidean eginen da, bakar-bakarrik, erregelamenduz ezarritako diren baldintzen arabera tramitatzen den administrazio agiri elektronikoko baten babesean egiten bada, deusetan galarazi gabe zirkulazioa paperezko agiri batekin hastea, sistema informatizaturik erabiltzerik ez badago eta erregelamenduz ezartzen diren baldintzak betetzen badira.”

Zortzi. 17. artikulua.

“17. artikulua. Irregularitasunak Batasunaren barreneko zirkulazioan.

Bi estatukideren arteko zirkulazio batean edo estatukide batetik hirugarren herrialde edo lurralde batera, estatukide baten lurraldean barna, egiten diren zirkulazioetan, fabrikazioaren gaineko zerga berezien xedeko produktuen bidalketa bat edo horren zati bat produktuen jasotzaileak hartzen ez badu Erkidegoaren lurraldean edo, esportazio kasuetan, bidalketa Elkargoaren lurraldetik benetan ateratzen ez bada, eta hori zerga horiek ordaindu beharrik ez izateko foru lege honen 6. artikuluan edo 16. artikuluko 1. eta 2. zenbakietan ezarritako kausengatik ez beste batengatik izan baldin bada, irregularitasun bat egon dela ondorioztatuko da.

## A) Etendura araubideko zirkulazioa.

1. Fabrikazioaren gaineko zerga berezien xedeko produktuen Batasunaren barreneko etendura araubideko zirkulazio batean:

a) Barneko lurralde eremuan irregularitasun bat gertatzen bada, eta horren ondorioz, fabrikazioaren gaineko zerga berezia sorrarazten bada, zerga horiek Espainiako zerga administrazio eskudunak eskatuko ditu.

b) Fabrikazioaren gaineko zerga berezien sorrarazpena dakarren irregularitasun bat gertatzen bada, barneko lurralde eremuan egiaztatzen dena, baina ezinezkoa bada zehaztea zein estatukidetan gertatu zen, irregularitasuna lurralde eremu horretan, eta egiaztatu den unean berean, gertatu dela ondorioztatuko da, eta zerga bereziak Espainiako zerga administrazio eskudunak eskatuko ditu.

2. Barneko lurralde eremutik bidalitako produktuak beste estatukide batean dagoen hartzailearengana iristen ez badira edo, esportazien kasuan, Erkidegoko lurraldetik benetan ateratzen ez badira, eta zirkulazioa egin bitartean ez bada zerga bereziak sorraraztea dakarren inolako irregularitasunik egiaztatu, ondorioztatuko da irregularitasun bat gertatu dela barneko lurralde eremuan eta zirkulazioa hasi den unean, eta zerga bereziak Espainiako zerga administrazio eskudunak eskatuko ditu, salbu eta, zirkulazioa hasi eta lau hilabete epean, Administrazioa gogobetzeko moduko froga aurkezten bada, erakusteko ezen produktuak hartzaileari entregatu zaizkiola, produktuak Erkidegoko lurraldetik benetan atera direla edo irregularitasuna barneko lurralde eremutik kanpora gertatu dela.

3. Aurreko 1. zenbakiko a) eta b) letretan aurreikusitako kasuetan, Espainiako zerga administrazioak, hala badagokio, bidalketaren xedeko estatukideko agintari eskudunei horren berri emanen die.

4. Dena dela, 1. zenbakiko b) letretan edo 2. zenbakian aurreikusitako kasuetan, zirkulazioa hasten denetik hiru urteko epea bukatu baino lehen, zehazten baldin bada Espainiatik kanpoko zein estatukidetan egin den benetan irregularitasuna, zerga bereziak estatukide horrek eskatuko ditu. Kasu horretan, Espainiako zerga administrazio eskudunak jasotako zerga bereziak itzuliko ditu, irregularitasuna benetan gertatu zen estatukideak zerga horiek jaso dituela egiaztatzeko frogak bidali ondoren.

5. Aurreko 2. zenbakian edo 1. zenbakiko b) letretan aipatutako kasuen antzeko egoeretan, barneko ez den Batasuneko lurralde eremuan egindako irregularitasun bat antzematen bada eta, zirkulazioa hasi eta hiru urteko epea bukatu baino lehen, zehazten bada irregularitasun hori barneko lurralde eremuan gertatu zela benetan, zerga bereziak Espainiako zerga administrazio eskudunak eskatuko ditu, eta zerga horiek hasiera batean jaso zituen estatukideko agintari eskudunei horren berri emanen die.

## B) Etendura araubidetik kanpoko zirkulazioa.

1. Baldin eta, fabrikazioaren gaineko zerga berezien xedeko produktuen Batasunaren barreneko zirkulazio batean, zerga sorrarazi bada barneko ez den Batasuneko lurralde eremuan dagoen estatukide igorlean:

a) Barneko lurralde eremuan irregularitasun bat gertatzen bada, eta horren ondorioz, fabrikazioaren gaineko zerga berezia sorrarazten bada, zerga horiek Espainiako zerga administrazio eskudunak eskatuko ditu.

b) Fabrikazioaren gaineko zerga berezien sorrarazpena dakarren irregularitasun bat gertatzen bada, barneko lurralde eremuan egiaztatzen dena, baina ezinezkoa bada zehaztea zein estatukidetan gertatu zen, irregularitasuna lurralde eremu horretan gertatu dela ondorioztatuko da, eta zerga bereziak Espainiako zerga administrazio eskudunak eskatuko ditu.

2. Dena dela, 1. zenbakiko b) letretan aurreikusitako kasuan, produktuak erosten direnetik hiru urteko epea bukatu baino lehen, zehazten baldin bada Espainiatik kanpoko zein estatukidetan egin den benetan irregularitasuna, zerga bereziak estatukide horrek eskatuko ditu. Kasu horretan, Espainiako zerga administrazio eskudunak jasotako



zerga bereziak itzuliko ditu, irregulartasuna beneratzen gertatu zen estatukideak zerga horiek jaso dituela egiaztatzeko frogak bidali ondoren.

3. Fabrikazioaren gaineko zerga berezien xedeko produktuen kasuan, haiei dagokien zerga bareneko lurralde eremuan sorrarazi bada eta, eremu horretatik barenekoa ez den Batasuneko beste lurralde eremu batera bidaltzean, bareneko lurralde eremutik kanpora irregulartasunen bat egiten bada eta, horren ondorioz, zerga bereziak irregulartasuna gertatu edo egiaztatzen zeneko estatukideak jasotzen baditu, Espainiako zerga administrazio eskudunak jasotako zerga bereziak itzuliko ditu, zerga horiek dagokion estatukidean ordaindu direla erakusteko frogak jaso ondoren.”

Bederatzi. 19.5. artikulua.

“5. Fabrikazioaren gaineko zerga berezien xedeko produktuen zirkulazioa egiten bada erregelamenduz ezartzen diren agiriak eta, hala badagokio, bareneko lurralde eremuko Batasuneko zirkulazioetan, ARC delako kodea izan gabe, tributu arloko arau-hauste larritzat hartzen ez den kasuetan, tributu arloko arau-hauste arina izanen da, eta zirkulazioan ari diren produktuei legokiekkeen kuartaren %10 adinako isun proportzionala jarriko da, betiere 600 eurotik gorakoa.”

Hamar. 21. artikuluar 2. zenbakia gehitu zaio. 21. artikulua gaur egun duen edukia artikulua horren 1. zenbakia izatera pasako da.

“2. Salbuetsita egonen dira, orobat, airez edo itsasontziz hirugarren herrialde edo lurralde batera (Kanariar irletatik aparte) joaten diren bidaiarien bagajeen garraiatzen diren edari alkoholduak, zergarik gabeko dendek entregatzen dituztenak.”

Hamaika. Lehenengo xedapen gehigarria. Arauen erreferentziak.

“Lehenengo xedapen gehigarria. Arauen erreferentziak.

Foru lege honetan agertzen diren ondorengo kontzeptu hauen erreferentziak zerga berezien araubide erkidea ezartzen duen araudian unean unean definitzen diren ber kontzeptuenak izanen dira: “barneko lurralde eremua”, “barnekoa ez den Batasuneko lurralde eremua”, “autokontsumoa”, “aisiarako abiazio pribatua”, “erreferentziako administrazio kodea”, “NC kodeak”, “Erkidegoa” eta “Erkidegoaren lurraldea”, “gordailuzain baimendua”, “?jasotzeko gordailua”, “gordailu fiskala”, “erregistraturik dagoen hartzailea”, “zuzeneko entrega”, “bidalketa bermatuak”, “Estatukidea” eta “Estatukide baten lurraldea”, “bidaltzaile erregistratua”, “esportazioa”, “fabrika”, “fabrikazioa”, “inportazioa”, “nazioarteko itsasoko edo aireko nabigazioa”, “aisiako nabigazio pribatua”, “anoa-hornidurako produktuak”, “fabrikazioaren gaineko zerga berezien xedeko produktuak”, “ontziaren barreneko hornidurak”, “jasotzaile baimendua”, “aduanako etendura araubidea”, “etendura araubidea”, “ordezkari fiskala”, “hirugarren herrialdea”, “hirugarren lurraldea”, “zergarik gabeko dendak”, “eraldaketak” eta “urrutiko salmentak”.

**Azken xedapen bakarra.** Indarra hartzea.

Tributu harmonizazioari buruzko Legegintzako Foru Dekretu honek Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratu eta biharamunean hartuko du indarra eta haren ondorioak 2010eko apirilaren 1ean hasiko dira.





